

# Kontsumo iraunkorra

## Haur hezkuntza

### Ustekabeak patioan



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

Argitaraldia: 1.a 2007ko irailean

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ortazar, S.L.

Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.

ISBN: 978-84-457-2607-5

Lege-gordailua: VI-392/07





## **AURKIBIDEA**

**Or.**

<b>Irakasleentzako informazioa .....</b>	<b>3</b>
• Jakin beharreko datuak .....	3
• Helburuak .....	4
• Edukiak .....	5
• Proposamen didaktikoak .....	5
<b>Aurretiko jarduerarako proposamenak .....</b>	<b>6</b>
<b>Jarduera osagarriak .....</b>	<b>7</b>
<b>Geroagoko jarduerak (Fitxa didaktikoak).....</b>	<b>9</b>



## JAKIN BEHARREKO DATUAK

Gizakiaren eta naturaren arteko erlazioan oreka lortzea ez da lan erraza. Aurrerapen teknologikoak eta giza KONTSUMOAK kalte handiak eragin dituzte, gure ingurunean. Giza ekintzak eragin larriak izan ditu baliabide naturaletan, eta zaborren trataera desegokiak ingurumen-arazo ugari sortu ditu.

Gaur egun, planeta desorekan dago. Leku batzuetan kontsumismoa da nagusi, eta beste batzuetan, premia gorria. Gainera, sistema horrek hurrengo belaunaldien etorkizuna arriskuan jartzen du. Beraz, protagonista izan behar dugu eta GARAPEN IRAUNKORrerantz jo, gaur egungo biztanleriaren beharrak asetzen ikasiz eta hurrengo belaunaldiei haien beharrak asetzeko aukerak emanez.

### GOGORATU BEHAR DA...

- Iparraldeko herrialdeek —munduko biztanleriaren % 20— energia guztiaren eta planetako baliabide naturalen % 80 kontsumitzen dute.
- Gaur egungo kontsumo-erritmoak berdin jarraituz gero, erregai fosilen erreserbak 50 eta 100 urte bitartean amaituko direla kalkulatu da.
- Urte gutxitan, hondakinen kopurua ikaragarri hazi da. Herrialde garatu bateko pertsona bakoitzak 1 kg zabor sortzen du egunero.
- Uraren kontsumoa handitzen ari da, mundu osoan. Oinarri-oinarrizko gai hori eskura izatea premiazko arazo bihurtuko da, hurrengo urteetan.
- Deforestazioak planeta osoari eragiten dio. Urtero, 20 milioi zuhaitz moztu dituzte estatuan, papera egiteko soilik.

### KONTSUMO IRAUNKORRA HAUR HEZKUNTZAN

Beharrezkoa da, txiki-txikitatik, KONTSUMO IRAUNKORREKO HEZKUNTZA izatea, ingurune naturalarekiko errespetuzko jarrerak barnera ditzaten. Hezkuntza-prozesua hau izango litzateke:

#### 1. INGURUNEA BEHATU ETA EZAGUTZEA.

Ezin da zerbaitengan eragin, zer den jakin gabe. Ingurune naturala ezagutzeko modu onena harekin harremanetan jarri, esperimendu eta jakin-mina piztea da. Lehen urratsa naturaren zati garelako sentitzea da.

#### 2. Ingurunea babesten laguntzen duten EKINTZAK EZAGUTZEA.

Naturako ekintzen eta fenomeno berri izan ondoren, nola eta zer bidetatik jardun behar den jakin behar da, natura babestu, mantendu eta aberasteko.

#### 3. Eguneroko kontsumoa oinarri hartuta, ingurumenari mesede egiten dioten JARRERAK ETA PORTAERAK GARATZEA.

Ikasleek ingurunea ezagutzea eta hura babesteko nola jardun jakitea alferrikoa da, horrekiko jarrerarik ez badago; hau da, ez bazaie ikasleei prestakuntzarik ematen kontzientziatzeko eta gauzak zergatik egin behar diren aztertzeko. Hori da, agian, kontsumo iraunkorreko heziketaren alderdirik garrantzitsuena.

- Ikasleek hazi batetik landarea nola hazten den eta argiak, beroak eta hezetasunak nola eragiten duten ikasten eta behatzen dutenean, landareen bizimoduari buruz kontzientziatzen ari dira.
- Landareei ura eman, zaindu eta arreta jartzeak landareak edertu egiten dituela ikasten dutenean, ekintzen eta ezagutzen arteko erlazioaz jabetzen dira, eta horrela, inguruan dituzten gauzak eta izakiak kontuan hartuta jarduten ikasten dute.
- Ikasleak baratzeaz arduratzen direnean, gizakiaren oinarrizko elikadura-beharrak betetzeko naturak ematen dienaren jakitun bihurtzen dira ikasleak.
- Ikasleek abere bat ezagutzen dutenean, elikatu, garbi eta osasuntsu mantendu eta harekin jolasten dute; aldi berean, gainerako abereak ezagutzen, errespetatzen, babesten eta zaintzen ikasten dute.

Kontsumo iraunkorreko hezkuntzaren zati handi batek **BALIOETAN HEZTEKO** aukera ematen du: errespetua, arreta, lankidetzeta, elkartasuna, kontzientziatzea, konpromisoa...

### GUSTATZEN ZAIGUNA, MAITE DUGUNA EDO BEHAR DUGUNA BABESTEKO GURE ESKU DAGOENA

Gure gizartean kontsumoa gehiegizkoa eta ez-premiazkoa da, eta horrek ingurumen-kostu handiak ditu.

- Baliabide naturalak agortzea.
- Zabor gehiegi.
- Uraren kutsadura.

- Airearen kutsadura.
- Lurzoruaren kutsadura.
- Gizarte-desberdintasunak, esplotazioa eta pobrezia.
- Naturgune falta.

Ingurune naturala errespetatzeko zenbait portaera lagungarriak izan daitezke, egoera hori aldatzeko. Adin horietako haurrekin lan egitean, urrezko hiru arauak kontuan hartu behar dira:

1. MURRIZTU
2. BERRERABILI
3. BIRZIKLATU

### **Lehen aukera murriztea da. Ahal bada, murriztu egin behar da.**

- ... uraren gastua.
- ... elektrizitatearen kontsumoa.
- ... paperaren erabilera.
- ... beharrezkoak ez diren bilgarriak.
- ... erabili eta botatzeko produktuen kontsumoa.
- ... beharrezkoak ez diren produktuak, erabilgarriak ez direnak, "pentsatu gabe" erostea.

### **Berrerabili**

- ... ontziak.
- ... paper-orriak.
- ... ehungintza eta arropak.
- ... beste ume batzuei jostailuak ematea.

Produktu asko, behin erabili ondoren, berriro ere erabil daitezke. Gaur egun, gero eta establezimendu gehiagok jasotzen edo erosten dituzte mota guztieta-ko produktuak, ondoren banatu edo saltzeko, beste pertsona batzuek erabil ditzaten. Esate baterako, altzariak, etxetresna elektrikoak, jostailuak, arropa, betaurrekoak eta erabili gabeko sendagaiak.

### **Birziklatu, murriztu edo berrerabili ezin izan duguna.**

Birziklatzeak azken aukera izan behar du. Zaborra bereizi egin behar da, materialak produkzio-prozesuan berriro erabil daitezkeelako. Horretarako, edukiontzia ditugu mota askotako hondakinentzat:

- EDUKIONTZI BERDEAK: beira-bilketa.
- EDUKIONTZI URDINAK: paper- eta kartoi-bilketa.
- EDUKIONTZI HORIAK: plastiko-, lata- eta tetrabrik-bilketa.
- Erabilitako pilak berariazko edukiontzi txikietan utzi daitezke. Edukiontzi horiek zenbait saltokitan egoten dira, bai eta kalean ere, herri batzuetan.

### **NATURAZ GOZATZEA ETA EMATEN DIZKIGUN AUKEREKIN ESPERIMENTATZEA**

Normalean, haurrek beste inork baino gehiago gozaten dute naturgunez eta animaliekin eta naturarekin lotutako guztiak erakarri egiten ditu. Horretaz baliatuz, naturarekiko jarrera positiboa gara daiteke haurrengan. Hori oinarri hartuta, zenbait alderdi landu daitezke:

- Landareak eta animaliak ezagutzea eta zaintzea.
- Naturguneak babestea (ibaiak, itsasaldeak eta basoak)
- Naturaz gozatzea: aire zabalean jolastea
- Dibertsio ez-kontsumista (jostailurik gabe jolastea...)

## **HELBURUAK**

### **Helburu orokorra:**

- Ingurune hurbila errespetatzen eta zaintzen ikastea.

### **Helburu zehatzak:**

- Ingurune natural hurbila ezagutzea.
- Ingurumen-arazoak ezagutzea.
- Berrerabiltzea eta birziklatzea ingurumenerako onuragarriak direla barnertzea.
- Papera birziklatzea baliabideak aurrezteko modua dela eta gastuak murriztu beharra barnertzea.
- Ura eta elektrizitatea aurreztu behar direla ulertzea eta kontsumo-alternatibak proposatzea.
- Eskuz egindako produktuak sortzeko urratsak ezagutzea, eta horren ekonomia-eta ingurumen-kostua (baliabide naturalak agortzea, kutsadura...) balioestea.

## EDUKIAK

1. Ingurumen-arazoak.
2. Ingurune natural hurbila. Landareak, animaliak, basoak...
3. Kutsadura.
4. Zaborra.
5. Berrerabiltzea eta birziklatzea.
6. Zenbait baliabide erabiltzea, kontsumitzea eta aurreztea: papera, ura, elektrizitatea.
7. Ontzi-motak eta haien ezaugarriak (jatorria, produkzioa eta birziklatzen den ala ez).
8. Lehengaiak eta lehengaien transformazioa.

## PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

IKASTEKO ETA IRAKASTEKO JARDUERAK	
<b>Aurretiko jarduerak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zentzumenekin jolasean</li> <li>2. Animalien ahotsak</li> <li>3. Paisaia garbia – paisaia zikina</li> <li>4. Edukiontziak gelan</li> </ol>
<b>Geroagoko jarduerak (fitxa didaktikoak)</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. fitxa. Nork berea, hori da legea</li> <li>2. fitxa. Patio garbia</li> <li>3. fitxa. Zabor-poltsa</li> <li>4. fitxa. Zaborra bereizten</li> <li>5. fitxa. Tontxuk papera birziklatzen du</li> <li>6. fitxa. Ezkutuko hitzaren bila</li> <li>7. fitxa. Energiaren ibilbidearen atzetik</li> <li>8. fitxa. Paisaia bateko zenbait elementu</li> <li>9. fitxa. Paisaia berritzen</li> <li>10. fitxa. Ibaia garbituko dugu</li> <li>11. fitxa. Badoa ura!</li> <li>12. fitxa. Argi gutxiago</li> </ol>
<b>Jarduera osagarriak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hondakinen bidez sortzea</li> <li>2. Esperimentua: kutsatutako urak</li> <li>3. Esperimentua: zaborrak</li> <li>4. Asmakizunak</li> </ol>

## 1. “Zentzumenekin jolasten gara”

Txangoa egingo dugu gertuko parke batera, ingurunea zentzumenen bidez eza-gut dezaten. Horretarako, hainbat proba egingo dituzte:

- 1. Begiratu.** Lore-multzoak bilatu, zuhaitzak zenbatu, animalia txikiren bat aurkitu, hosto desberdinak bilatu...
- 2. Usaindu.** Loreek, zuhaitzetako hostoek, parke osoak... zer usain duten sentitu.
- 3. Entzun.** Begiak itxi, eta ume bakoitzak zer entzuten duen esango du (txo-riak abesten, hostoak mugitzen...).
- 4. Ukitu.** Begiak itxita, paisaiako hainbat elementuren testurak igarriko dituz-te (petaloak, hostoak, lur bustia, lur lehorra...).

## 2. “Animalien hotsak”

Animalien hotsak ikasiko ditugu, eta, guztion artean, oso abesti berezia asma-tuko dugu. Gela taldetan banatuko dugu, eta talde bakoitza animalia bat izan-go da. Animalia baten irudia erakutsitako bakoitzean, dagokion taldeak anima-lia horren hotsa egingo du:

Txakurra: au-au	Oilarra: kukurruku	Txoria: txio-txio
Behia: marru-marru	Katua: miau	Zaldia: hiiiiii
Txerria: kurrin-kurrin	Ardia: bee	Erlea: bzzz
Igela: krua-krua	Ahatea: kua-kua	

## 3. “Paisaia garbia eta paisaia zikina”

Argazki eta marrazkien collageen bidez, gelaren erdiak paisaia garbia sortuko du, eta beste erdiak paisaia zikina.

- Paisaia garbia: animalia, landare, zuhaitz hostotsu eta abarren argazkiak edo marrazkiak.
- Paisaia zikina: botila, paper, ibai zikin, zuhaixka eta abarren argazkiak edo marrazkiak.

Ikasle bakoitzak ekarri duen irudia erakutsiko du, eta zer den eta bere paisaian zergatik jarri duen azalduko dio gela osoari.

## 4. “Edukiontziak gelan”

Kartoizko kaxa zaharrak bilatu, eta 2 motatako edukiontziak jarriko ditugu (bat papera eta kartoia botatzeko, eta bestea plastikozko ontziak botatzeko). Ikasleek apainduko dituzte beren marrazkiekin (edukiontzi horretara bota dai-tezkeen gauzak).


- 1. edukiontzia** (papera eta kartoia): erabilitako paperezko orriak, koaderno zaharrak...
- 2. edukiontzia** (plastikozko ontziak): jogurt-ontziak, plastikozko zorroak...



## ZABORRETAKO MATERIALAREKIN GAUZAK EGITEA

**BEHAR DUDANA:** poliespanezko erretilu bat (jakietarako erretilu zuria), argazki bat eta aldizkari zaharrak. Horrez gain, arkatza, artaziak, zinta itsaskorra eta kola zuria.

Jarraitu beharreko pausoak:



1. Marraztu arrain bat erretiluren atzeko aldean.
2. Moztu arraina ertzetatik, buztanean goitik behera doan lerroa izan ezik. Moztu ondoren, bultzatu atzerantz eta han aterako da argazki-markoaren euskarria.
3. Markoa apain dezakezu margotuz edo paperezko bolatxoak itsatsiz; hartara, ekarri dituzun aldizkari zaharrak aprobeztatuko dituzu.
4. Amaitzeko, jarri atzean zure argazkia. Zinta itsaskorra erabil dezakezu tinko gelditzeko.

Poliespana egiteak nahiz desagerrarazteak kalte handia eragiten du gure ingurumenean. Poliespanezko erretiluek ezin ditugu ontzien edukiontzira bota (horia), eta, hortaz, zabortegira edo erraustegira joaten dira. Berrerabiltzea da irtenbide solidarioena eta ingurumena gutxien kaltetzen duena.

## ESPERIMENTUA: KUTSATUTAKO URA

**BEHAR DUDANA:** satinatu gabeko paper zuria, nahiko porotsua, 2 balde eta koloretako tenperak.



Bete bi baldeak urez. Batean, tenpera tanta batzuk bota. Ume bakoitzak arrain bat marraztuko du paperean, eta, ondoren, moztu edo zulatu. Ikasle batzuek ur garbitan jarriko dute beren arraina, eta besteek tindatutako uretan.

Zer gertatu da?

Itsasoa eta ibaiak zaintzen ez baditugu, zaborra botatzen badugu, ura zikindu egiten da, eta animaliak eta landareak gaixotu egiten dira, hil egin daitezke. Gu geu ere gaixotu gajitezke ur zikinez pozoitutako arrainak janda.

## ESPERIMENTUA: ZABORRAK



**BEHAR DUDANA:** 2 jogurt-ontzi huts, lur bustia, plastiko zati bat eta hosto bat. Bete 2 jogurt-ontzi huts lur bustiz. Batean, plastiko zatia lur peratu, eta bestean, hostoa. Bi aste edo gehiago utzi, eta zer gertatu den ikusiko dugu.

Aldatu al da zabor horietakoren bat? Zein?  
Ba al dakizue zergatik desagertu den bat eta bestea ez?

Zabor batzuk deskonposatu egiten dira, eta elikagai dira landare eta animalientzat (adibidez, fruta-hondarrak, landare-hostoak...), baina beste batzuek urte asko behar dituzte deskonposatzeko, eta izugarri zikintzen eta hondatzen dute gure ingurunea.

## ASMAKIZUNAK



- Haien koloreek basoa alaitzen dute, eta, gainera, airean usain gozoa uzten dute (**LOREAK**).
- Ibaien hilobia, arrainen habia, asmatzeko errazagia baldin bazara argia (**ITSASOA**).
- Udan estalita eta neguan biluzik, hori oso gogorra da! (**BASOA**).
- Beti ari den arren hazten eta loditzen, ez da bere lekutik sekula ere mugitzen (**ARBOLA**).
- Ziba balitz bezala birak ematen ditu eguzkiaren inguruan, bira eta bira, baina ez du motorrik (**LURRA**).
- Ez du txapelik baina bai burua, orririk badu eta ez da liburua (**ARBOLA**).